

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 3a.

Vitoria-Gasteiz, a 3 de diciembre de 2021.

BILDU DIRA

Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusi Antonio Aiz Salazar jn. eta Garaiko Alkate Udalburua Erramun Osa Ibarloza

SE REUNEN

El Sr. D. Antonio Aiz Salazar, Director General de la Agencia Vasca del Agua y el Sr. D. Erramun Osa Ibarloza, Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Garai

ESKU HARTU DUTE

Lehenak, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusi den aldetik eta Agentziaren Estatutuen 7.2.g) artikulua ematen dizkion eskumenak betez.

Bigarrenak, udalaren legezko ordezkari gisa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikulua ematen dizkion ahalmenak erabiliz.

Bi aldeek LANKIDETZA-HITZARMEN hau sinatzeko beharrezko legezko gaitasuna onartzen diote elkarri, eta, horretarako

INTERVIENEN

El primero de ellos en su calidad de Director General de la Agencia Vasca del Agua y en virtud de la atribución que le confiere el artículo 7.2.g) de los Estatutos.

El segundo, en ejercicio de la capacidad legal de representación del Ayuntamiento que le confiere el artículo 21 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.

Ambos intervinientes se reconocen mutuamente capacidad legal para celebrar el presente CONVENIO DE COLABORACIÓN, y a tal efecto



HONAKOA AZALTZEN DUTE

EXPONEN

LEHENENGOA.- Euskal Autonomia Estatutuaren 10. artikuluko 11. eta 33. idatz-zatien arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio, bere lurralde eremuaren barruan, aprobetxamendu hidraulikoen gaineko eskumen eskusiboa, baldin eta ibaiek ibilbide osoa Euskal Autonomia Erkidego barruan egiten badute, bai eta Estatuak legez interes orokorrekozat jo ez dituen eta beste autonomia erkidego batzuei eragiten ez dieten obra publikoen gainekoak ere.

Uztailaren 12ko 297/1994 Dekretuaren bidez, - Estatu Administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoari baliabide eta ustiakuntza hidraulikoen arloko funtzioak eskualdatzeari buruzko Eskualdatzeen Batzorde Mistoaren Erabakia onartu zuena - Estatuari zegozkion funtzioak eta bitartekoak EAera eskualdatu ziren, besteak beste, toki-korporazioei laguntza ematekoa Autonomia Erkidegoaren lurraldean egiten diren obra hidraulikoak gauzatzeko, betiere, jarduketak horiek EAEko Administrazioak interesgarri jotzen dituenean, horiek egiteak beste autonomia erkidego bati eragiten ez diotenean eta lege Estatuaren interes orokorrekozat jotzen ez direnean.

BIGARRENA.- Ekainaren 26ko 1/2006 Legeak Uraren Euskal Agentzia sortu zuen,

PRIMERO.- Que, conforme al artículo 10, párrafos 11 y 33, del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, corresponde a la Comunidad Autónoma, dentro de su territorio, la competencia exclusiva en aprovechamientos hidráulicos, cuando las aguas discurren íntegramente dentro del País Vasco, así como en obras públicas que no tengan la calificación legal de interés general del Estado o cuya realización no afecte a otras Comunidades Autónomas.

Por Decreto 297/1994, de 12 de julio, por el que se aprobó el Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias sobre traspaso de funciones de la Administración del Estado a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de recursos y aprovechamientos hidráulicos, se transfirieron las funciones y medios correspondientes, entre otros, al otorgamiento de auxilios a corporaciones locales para la ejecución de obras hidráulicas que se realicen en el territorio de la Comunidad Autónoma, cuando tales actuaciones sean de su interés, su realización no afecte a otra Comunidad Autónoma y no tengan la calificación legal de interés general del Estado.

SEGUNDO.- Que por Ley 1/2006, de 26 de junio, se creó la Agencia Vasca del Agua,



ingurumen gaietako eskumena duen sailari atxikitako zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa, eta lege horren arabera, Euskadin uraren inguruko politika gauzatzea du xede agentzia horrek. Horri dagokio, besteak beste, Estatuko Administrazioak transferitu, eskuordetzan eman edo Agentziaren esku utzitako funtzioak gauzatzea.

Fin

HIRUGARRENA.- Hirigunean sortutako hondakin-urak tratatzen dituen egungo arazketa-sistemaren (hobi septikoa) ordeztu, isuriaren kalitatea hobetzea ahalbidetuko duen arazketa-sistema autonomoa (erabateko oxidazioa) jartze aldera, Garaiko Udalak Garaiko udalerrian hondakin-uren araztegi berriaren proiektua idatzi du. Proiektu horrek efluente bat eskatutako baldintzekin bermatzeko beharrezkoak diren obrak zehazten ditu.

LAUGARRENA.- Isurketaren baldintzak hobetzea dakarten obra horiek gauzatzeko, Garaiko Udalak laguntza ekonomikoa eskatu dio Uraren Euskal Agentziari.

BOSGARRENA.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko

como ente público de Derecho privado adscrito al Departamento competente en materia de medio ambiente, cuyo objeto es llevar a cabo la política del agua en Euskadi y al que le corresponde, entre otras funciones, el ejercicio de aquellas transferidas, delegadas o encomendadas por la Administración estatal.

TERCERO.- Que con el fin de sustituir el actual sistema de depuración (fosa séptica) que trata las aguas residuales generadas en el casco urbano, por un sistema de depuración autónomo (oxidación total) que permitirá una mejora de la calidad del vertido, el Ayuntamiento de Garai ha redactado el "Proyecto de nueva estación depuradora de aguas residuales en el T. M. de Garai", que define las obras necesarias para garantizar un efluente con las condiciones exigidas.

CUARTO.- Que para llevar a cabo la ejecución de las citadas obras, que conllevan una mejora de las condiciones del vertido, el Ayuntamiento de Garai ha solicitado el auxilio económico de la Agencia Vasca del Agua.

QUINTO.- Que el artículo 57 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las



7/1985 Legearen 57. artikulua Toki Administrazioen eta Autonomia Erkidegoen arteko lankidetzak ekonomiko, tekniko eta administratiboa baimentzen du, bai tokiko zerbitzuetan, bai interes komuneko gaitan, borondatez eta legeetan aurreikusitako modu eta baldintzen arabera, eta, nolabait ere, sinatzen dituzten administrazio-hitzarmenen bidez gauzatu ahal izango da.

Ido beretik, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 100. artikulua ahalmena ematen die toki-erakundeei lankidetzak-hitzarmenak sinatitzaten, beren artean edo gainerako administrazioekin, kudeaketa publikoa eraginkorragoa izan dadin eta administrazio-bikoiztasunak saihesteko edo ezabatzeko.

SEIGARRENA.- Bestalde, ekainaren 23ko 1/2006 Legeak 39.2 artikuluan xedatzen duenez, administrazio publiko eskudunek hitzarmenak egin ahal izango dituzte obra hidraulikoak egiteko eta finantzatzeko.

ZAZPIGARRENA.- Horrenbestez, Uraren Euskal Agentziak eta Garaiko Udalak LANKIDETZA-HITZARMEN hau sinatzea erabaki dute. Hona hemen hitzarmenaren

Bases del Régimen Local, autoriza la cooperación económica, técnica y administrativa entre las Administraciones Locales y las Comunidades Autónomas, tanto en servicios locales como en asuntos de interés común, con carácter voluntario y según las formas y términos previstos en las leyes, pudiendo tener lugar, en todo caso, mediante los convenios administrativos que suscriban.

En términos similares, el artículo 100 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, faculta a las entidades locales para suscribir convenios de cooperación, entre sí o con el resto de administraciones, para la más eficiente gestión pública y con la finalidad de evitar o eliminar duplicidades administrativas.

SEXTO.- Que por su parte la citada ley 1/2006, de 23 de junio, en su artículo 39.2 dispone que las Administraciones públicas competentes podrán celebrar convenios para la realización y financiación de obras hidráulicas.

SÉPTIMO.- Que, por todo lo expuesto, la Agencia Vasca del Agua, y el Ayuntamiento de Garai proceden a la formalización del presente CONVENIO DE COLABORACIÓN, con arreglo a las siguientes



KLAUSULAK

CLÁUSULAS

LEHENENGOA.- HITZARMENAREN HELBURUA.

L-03
Hitzarmen honen xedea da Uraren Euskal Agentziak eta Garaiko Udalak Garaiko udalerriko (Bizkaia) hondakin-uren araztegi berria egiteko elkarlanean nola jardungo duten arautzea. Horrek udalerriko isurien baldintzak hobetzea ekarriko du.

BIGARRENA.- GAUZATU BEHARREKO JARDUKETAK.

V Gauzatu beharreko jarduketak, hurrengo klausuletan ezarritako baldintzetan egikarituko direnak, hauek dira: Garaiko udalerrian hondakin-uren araztegi berriaren proiektuari dagozkion obrak egitea.

Proiektua gauzatzeko aurrekontua 198.337,19 eurokoa da.

HIRUGARRENA.- URAREN EUSKAL AGENTZIAREN KONPROMISOAK

PRIMERA.- OBJETO DEL CONVENIO

El presente convenio tiene por objeto regular las condiciones en las que la Agencia Vasca del Agua y el Ayuntamiento de Garai se comprometen a colaborar en la ejecución de la nueva Estación Depuradora de Aguas Residuales del término municipal de Garai (Bizkaia), que conlleva una mejora de las condiciones del vertido en el municipio.

SEGUNDA.- ACTUACIONES A EJECUTAR.

Las actuaciones a ejecutar, en los términos establecidos en las cláusulas siguientes, consisten en la ejecución de las obras correspondientes al "Proyecto de nueva estación depuradora de aguas residuales en el T. M. de Garai".

El presupuesto de ejecución del proyecto asciende a 198.337,19 euros.

TERCERA.- COMPROMISOS DE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA



Uraren Euskal Agentziak konpromisoa hartzen du adierazitako proiektuaren obren benetako kostuaren 30.000 euro finantzatu eta ordaintzeko, hitzarmen honetan aurreikusitako baldintzetan. Kopuru hori Agentziaren aurrekontuko 23680157 partidaren kargura finantzatuko da.

La Agencia Vasca del Agua se compromete a financiar y abonar 30.000 euros del coste efectivo de las obras del citado proyecto, en los términos previstos en el presente convenio, que se financiarán con cargo a la partida 23680157 del presupuesto de la Agencia.

LAUGARRENA.- GARAICO UDALAREN BETEBEHARRAK.

Garaiko Udalak honako betebeharrak izango ditu:

a) Proiektuan jasotako obrak kontratatu eta zuzentzea.

a) Proiektuan sartutako obren 168.337,19 € finantzatu eta ordaintzea.

c) Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren 2021eko abuztuaren 12ko Ebazpenaren bidez Garaiko Udalari emandako isurketa-baimenean ezarritako baldintzak betetzea.

d) Hitzarmenaren xede den saneamendu-sistema behar bezala kudeatu eta ustiatzea.

e) Beharrezko aurrekontu-aurreikuspenak egitea eta tarifak egokitzea, azpiegitura

CUARTA.- OBLIGACIONES DEL AYUNTAMIENTO DE GARAI.

El Ayuntamiento de Garai se obliga a:

a) Contratar y dirigir las obras incluidas en el proyecto.

b) Financiar y abonar 168.337,19 € de las obras incluidas en el proyecto.

c) Dar cumplimiento al condicionado establecido en la autorización de vertido otorgada al Ayuntamiento de Garai por Resolución de la Confederación Hidrográfica del Cantábrico de 12 de agosto de 2021.

d) Realizar una gestión y explotación adecuadas del sistema de saneamiento objeto del convenio.

e) Realizar las previsiones presupuestarias necesarias y adecuar las tarifas de manera que se asegure la cobertura de los costes de



ustiatu, mantendu eta birjartzeko kostuak estaliko direla bermatzeko.

explotación, mantenimiento y reposición de la infraestructura.

BOSGARRENA.- OBRAK KONTRATATU, ZUZENDU ETA IKUSKATZEA.

QUINTA.- CONTRATACIÓN, DIRECCIÓN, INSPECCIÓN Y EXPLOTACIÓN DE LAS OBRAS.

1.- Garaiko Udalak arduratuko da bigarren klausulan jasotako obrak kontratatu, zuzendu eta teknikoki ikuskatzeaz, eta eginkizun horiek ordenamendu juridikoak baimendutako edozein erakunderen bitartez kudeatu ahal izango ditu.

1.- El Ayuntamiento de Garai será responsable de la contratación, dirección e inspección técnica de la ejecución de las obras recogidas en la cláusula segunda, que podrá gestionar tales atribuciones a través de cualquiera de las formas autorizadas por el ordenamiento jurídico.

2.- Jarduketak hasten direnetik, haien identifikazio-karteletan, iragarkietan eta bestelako seinaleetan, Uraren Euskal Agentziak finantziazioan parte hartzen duela adieraziko da.

2.- Desde el inicio efectivo de las actuaciones, en los carteles identificativos, anuncios y cualquier clase de señalización referente a las mismas se hará constar la participación de la Agencia Vasca del Agua en la financiación.

3.- Zazpigarren klausulan araututako jarraipen-batzordeko ordezkariaren bitartez, hitzarmen hau betetzeak eragiten dituen administrazio-izapide guztien garapenari eta gauzatzeari buruzko dokumentazioaren kopia eman beharko dio udalak Uraren Euskal Agentziari.

3.- A través de su representante en la comisión de seguimiento, regulada en la cláusula séptima, el ayuntamiento deberá informar puntualmente a la Agencia Vasca del Agua y aportar copia de la documentación referente al desarrollo y ejecución de todos y cada uno de los trámites administrativos que ocasione el cumplimiento del presente convenio.

Agentzia horrek eta Herri Kontuen Euskal Epategiak agiriak eta informazioa eskatu ahal

La citada Agencia y el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas podrán solicitar la



izango dituzte, eta egoki iritzitako ikuskarpenak, kontrolak eta fiskalizazioak egin ahal izango dituzte, Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ekarpena behar bezala bideratu den eta ekarpena egiteko baldintzak bete diren zehazteko.

4.- Administrazio kontratatzaileak obrak hartzeko ekitaldira Uraren Euskal Agentziako teknikari bat joango da, obrak amaitutakoan egokitzapen teknikoa ikuskatzeko.

SEIGARRENA.- LAGUNTZAREN XEDEA ETA ORDAINKETA

1.- Uraren Euskal Agentziaren laguntzaren zenbatekoa kontratazioak behar bezala egitearen ondoriozko kostua finantzatzeko baino ezin izango da erabili. Ondorioz, kontratazio-organoari dagozkion kontratubetebeharrak ez betetzeagatik sor daitezkeen zenbatekoak ez dira haren kontura ordainduko; besteak beste, zuinketa desegokiak eragindakoak, lurrak erabilgarri ez egoteak eragindakoak edo ziurtagiriak berandu ordaintzeak eragindakoak, besteak beste. Era berean, ez dira ordainduko beste kontzeptu batzuk, hala nola finantza-kostuak, lurrak eskuratzea, proiektuak idaztea, obrak zuzentzea, ikuskatzea eta zaintzea, etab.

documentación e información y efectuar las inspecciones, controles y fiscalizaciones de cualquier naturaleza que estimen oportunos para la determinación del adecuado destino de la aportación de la Administración de la Comunidad Autónoma y del cumplimiento de las condiciones en que se compromete.

4.- Al acto de recepción de las obras por la Administración contratante asistirá un técnico de la Agencia Vasca del Agua con el fin de fiscalizar la adecuación técnica de las obras una vez finalizadas.

SEXTA.- DESTINO Y PAGO DEL AUXILIO

1.- El importe del auxilio de la Agencia Vasca del Agua sólo podrá destinarse a la financiación del coste derivado de la normal ejecución de las contrataciones. En consecuencia, no serán abonables con cargo al mismo aquellas cantidades que pudieren devengarse del incumplimiento de las obligaciones contractuales que incumben al órgano de contratación, entre las que se refieren las ocasionadas por un incorrecto replanteo, las derivadas de la falta de disponibilidad de los terrenos o las derivadas del tardío pago de las certificaciones, entre otras, ni tampoco otros conceptos diferentes tales como costes financieros, de adquisición de terrenos, de redacción de proyectos,



2.- Uraren Euskal Agentziak ekarpena ordainduko du dagozkion ziurtagiriak jasotzean.

ZAZPIGARRENA.- JARDUNEN JARRAIPENERAKO BATZORDEA.

1.- Lankidetza-hitzarmen honen jarraipen-batzordea eratuko da. Batzordekideak lau izango dira: bi Uraren Euskal Agentziakoak; beste biak, berriz, Garaiko Udalekoak. Lankidetza-hitzarmen hau sinatu duten aldeek izendatuko dituzte, hurrenez hurren, honako eginkizun hauek betetzeko:

a) Jarraipena egitea hitzarmen honetan aurreikusitako jarduerak zuzen betetzeko, eta irizpideak eta bitartekoak ezartzea alderdiek elkarri informazioa eman diezaioten eta dagozkien konpromisoak egoki bete ditzaten.

b) Kasu bakoitzean behar diren izapideak azkar egitea eragotz dezaketen oztopoak kentzeko bideak ematea.

c) Lankidetza-hitzarmen honen xedeko jarduketak beteko direla bermatzeko behar diren neurriak jakinaraztea eta proposatzea.

dirección, inspección y vigilancia de obras, etc.

2.- La Agencia Vasca del Agua realizará el pago de la aportación a la recepción de las correspondientes certificaciones.

SÉPTIMA.- COMISIÓN DE SEGUIMIENTO DE LAS ACTUACIONES.

1.- Se constituirá una comisión de seguimiento del presente convenio de colaboración compuesta por cuatro representantes, dos de la Agencia Vasca del Agua y otros dos del Ayuntamiento de Garai, que se designarán, respectivamente, por las partes firmantes del presente convenio, para el desempeño de las siguientes funciones:

a) Llevar a cabo el seguimiento de la normal ejecución de las actuaciones previstas en el presente convenio de colaboración, determinando los criterios y modos para posibilitar la mutua información y adecuado cumplimiento de los compromisos respectivos.

b) Facilitar la remoción de los obstáculos que entorpezcan la celeridad de los trámites requeridos en cada caso.

c) Informar y proponer las medidas precisas para garantizar el cumplimiento de



d) Lankidetzaz hitzarmen honek sor ditzakeen interpretazio- eta betearazpen-arazoak konpontzen saiatzea.

2.- Lankidetzaz hitzarmena indarrean dagoen bitartean, aldeetako edozeinek proposatuta elkartuko da batzordea, jarduketak ondo joan daitezzen behar adina bider. Presidentetza eta idazkaritza txandaka beteko dituzte, batzordeak berak bestelakorik adosten ez badu. Kideek aho batez onartu beharko dituzte akordioak eta bilera-quorumak.

3.- Jarraipen Batzordearentzat espreski jasotzen ez dituen gaietan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko Tituluaren II. kapituluaren hirugarren atalean arautzen den kide anitzeko organoen araubidea aplikatuko da.

ZORTZIGARRENA.- HITZARMENAREN ARAUBIDEA ETA INTERPRETAZIOA.

1.- Hitzarmen hau administrazio arlokoa da, eta, beraz, interpretatu eta garatzeko administrazio publikoen arteko lankidetzaz hitzarmenei aplikatu beharreko

las actuaciones objeto del presente convenio de colaboración.

d) Procurar la resolución de los problemas de interpretación y de ejecución que pueda plantear el presente convenio de colaboración.

2.- Durante la vigencia del convenio y a propuesta de cualquiera de las partes, la comisión se reunirá siempre que lo requiera la buena marcha de las actuaciones, siendo rotatorias la presidencia y la secretaría de la misma, salvo acuerdo distinto expreso de la propia Comisión. Los quórumos de reunión y de adopción de acuerdos serán los de unanimidad de sus miembros.

3.- En lo no previsto expresamente para la comisión de seguimiento, le será aplicable el régimen de los órganos colegiados regulado Sección 3ª del Capítulo II del Título Preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

OCTAVA.- RÉGIMEN E INTERPRETACION DEL CONVENIO.

1.- El presente convenio es de naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico administrativo



administrazioko ordenamendu juridikoa bete beharko da.

2.- Hitzarmenak edo hori betearazteak sortarazitako interpretazio-arazoak jarraipenerako batzordeak konponduko ditu aurreko klausulan esandakoari jarraikiz, eta, hala ezin bada, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean xedatutakoa bete beharko da.

BEDERATZIGARRENA.- HITZARMENAREN ONDORIOAK ETA IRAUPENA.

1.- Hitzarmenak ez ditu parte-hartzaileak behartuko nork bere aginpideei uko egin edo haiek aldatzera, eta hitzarmenaren ondorio diren konpromisoengatik erantzukizunak bakarrik hartuko dituzte beren gain.

2.- Hitzarmenak sinatzen denetik izango ditu ondorioak eta ordutik aurrera behartuko ditu parte-hartzaileak, eta hura egikaritzeko jardunaren kontratazioa likidatu eta ordaindu arte iraungo du, lau urteko hasierako mugarekin; epe hori luzatu ahal izango da, aplikatu beharreko legeriaren arabera.

aplicable a los convenios de colaboración entre administraciones públicas.

2.- La resolución de los problemas de interpretación que puedan plantear el presente convenio o su ejecución serán resueltos por la comisión de seguimiento según lo referido en la cláusula anterior; si no fuera posible, se estará a lo dispuesto en la citada Ley 40/2015, de 1 de octubre.

NOVENA.- EFECTOS Y DURACIÓN DEL CONVENIO.

1.- El convenio no supondrá renuncia ni alteración de las competencias de las partes intervinientes, que asumen únicamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que contraen en virtud del mismo.

2.- El convenio surtirá efectos y obligará a las partes intervinientes desde su firma, y durará hasta la liquidación y pago de la contratación de la actuación para su ejecución, con un máximo inicial de cuatro años prorrogables de conformidad con la legislación aplicable.



**HAMARGARRENA.-
IRAUNGITZEA.**

HITZARMENA

1.- Hitzarmena aurreko klausulan ezarritako indarraldia igaro delako edo hitzarmena hautsi egin delako iraungiko da.

2.- Aldeetako batek onartutako konpromisoak betetzen ez baditu, besteak eskubidea izango du zorrotz betetzeko eskatzeko edo hitzarmena hausteko eskatzeko. Hitzarmena hautsiz gero, aldeek zehaztuko dute nola amaituko diren eta ordainduko diren gauzatzen ari diren obrak.

Eta horren guztiaren ondorioz eta horrekin bat, aldeek idazpuruan adierazitako leku eta egunean sinatu dute hitzarmena bina aletan.

DÉCIMA.- EXTINCIÓN DEL CONVENIO.

1.- El convenio se extinguirá bien por el transcurso del plazo de vigencia referido en la cláusula anterior o por resolución.

2.- El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a la otra para exigir su estricto cumplimiento o para solicitar la resolución del convenio. En caso de resolución, las partes determinarán las condiciones para la finalización y pago de las obras que se hallen en ejecución.

Y en virtud y de conformidad con lo establecido, firman los comparecientes, por duplicado, en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento.

URAREN EUSKAL AGENTZIAREN ZUZENDARI
NAGUSIA / EL DIRECTOR GENERAL DE LA
AGENCIA VASCA DEL AGUA


ZUZENDARI NAGUSIA
ur agentzia
AGENCIA VASCA DEL AGUA
DIRECTOR GENERAL
ANTONIO AIZ SALAZAR

GARAIKO ALKATE-UDALBURUA / EL
ALCALDE / PRESIDENTE DEL
AYUNTAMIENTO DE GARAI


ERRAMUN OSA IBARLOZA
(BIZKAIA)